

{ datorrena } **Isidro Esnaola**

Europar Batasuna deklaratu gabeko gerran sartuta dago

1999an Qiao Liang eta Wang Xiangsui militar txinatarrek beren “Unrestricted Warfare” (mugarik ez duen gerra) liburu ospetsua argitaratu zuten, gerra moderno operazio militarrek baino askoz gehiago dela argudiatuz. Ondoren, Frank Hoffmannek gerra hibridoaren kontzeptua proposatu zuen 2007an. Mende honetan gerrari buruzko gero eta teorizazio gehiagok gerraren izaera multidimentsionala eta konplexua azpimarratzen dute. Baina eztabaida teorikoez haratago, horrek inplikazio praktiko sakonak ditu. Egungo egoera ikuspuntu horretatik aztertuta, Europar Batasuna Errusiarekin gerran dagoela ondoriozta dezakegu. Gertaerek berretsi baino ez dute egiten ondorio hori.

Kanpora begira, Europar Batasunak Errusiarekin harreman ekonomikoak haustea erabaki zuen, ez bakarrik zigorrekin, baita trafikoa debekatuz ere, finantza fluxuak moztuz, etab. Gainera, formal aritu da Ukrainara armak ematen, baina baita beste baliabide teknikoak eta informazioa ere; mertzenarioek ere pasea izan dute. Falta den gauza bakarra da bere militarrek gudu zelaiko borrokan parte hartzea.

Barrura begira, *de facto*, eskubide ugari daude etenda: Errusiako komunikabide eta albiste agentziak debekatuta daude, telebista kateen seinaleak moztuta daude eta abar. Hori guztia epailearen agindurik gabe egin da. Pablo Gonzalez euskal kazetariak Polonian jarraitzen du arbitrarioki espetxeratua. Baina ez dituzte komunikabideak bakarrik isildu, Frantzisko aita santuaren adierazpenak ere, diskurtso ofizialarekin bat ez zetozenak, erabat isilarazi dituzte. Gerra egoera bati dagokion informazio itxitura dugu gaur egun. Euskal Herrian antzeko egoerak bizi izan ditugu: ZEN planaz geroztik, salbuespen egoera ezagutu genuen, itxurazko demokrazia baten barruan.

Gerraren testuinguru honetan, iruditzen zait Europako ezkerreko gehiagok dabilela Errusiari arrazoia ematea saihesten, gerra deseskalatzen eta geldiarazten baino. Argi dago egungo errusiarfobiaren bonbardaketarekin gerrak ez duela hauteskunde etekinik emango. Hala ere, Europako burokratek hartutako erabakiak ondorio katastrofikoak izaten ari dira langileengan; eta, apatia orokorreko testuinguru honetan, gatazkak gora egitea oso erraza da eta Europa osoa lis-kar zuzenera eraman dezake.

Mundu anglo-saxoitik kanpo, eta Japonian prebentzio askorekin, Europak ez du aliatu bakar bat ere lortu. Okerrena da gainerako herrialdeak gero eta nekatuago daudela europar harrokeriaz. Duela gutxi

Indiako Kanpo Harremanetarako ministroak adierazi du nahikoa dela, Europak ezin duela pentsatu bere arazoak guztionak direla, baina besteenak haienak bakarrik direla

egindako elkarrizketa batean, Indiako Kanpo Harremanetarako ministroak, Subrahmanyam Jaishankarrek, esan zuen nahikoa dela, Europak ezin duela pentsatu bere arazoak guztionak direla, baina besteenak haienak bakarrik direla. Eta gaineratu zuen Europak «heltzen hasi» behar duela. Agian giro horrengatik, azkenean covid-aren aurkako txertoen patenteak partzialki askatzea onartu du EBk MMEko azken bileran. Berandu eta gaizki aurpegia garbitzeko.

Europa jada ez da erreferentea ez demokraziaren ikuspuntutik, ez giza eskubideen defentsan. Eta noizbait izan bazen, txertoen patenteekin erreferente etiko izateari ere utzi zion. Ukrainako gerrarekin batera, Europako eliteen eta beren proiektuaren benetako izaera inperialista azaleratu da. •